



ARARTEKOAK 2007ko TXOSTENA AURKEZTEN DIO EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEARI

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 15a

Lehendakari andrea, legebiltzarkideok, ohore handiz agertzen naiz Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzorde honen aurrean, Ararteko erakundearen urteroko txostenaren berri emateko. Agerraldi honetan alboan ditut arartekoaren ondokoa, Julia Hernández, eta idazkari nagusia, Faustino López de Foronda.

Hasi aurretik, irmoki gaitzetsi nahi dut Juan Manuel Piñuel guardia zibilaren erailketa, ETAk Legutioko kuartel etxearen aurka egindako atentatu terroristaren ondorioz, eta nire elkartasuna adierazi nahi diet eraildako pertsonaren senideei, lagunei eta lankideei, zauritutako guardiei eta Legutioko kuartel etxean bizi zirenei, baita guardia zibilaren partaide guztiei ere.

Nire azalpenean EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditut, euskara eta gaztelania, edukia errepikatu gabe.

Batzorde honen aurrean txostena aurkezteak aukera bikaina ematen dio Ararteko honi, Legebiltzarraren goi ordezkari denez, bere jarduera Legebiltzarrari ezagutarazteko eta legebiltzar taldeek horren edukiaz egin ditzaketen galderei erantzuteko.

Legebiltzarraren araudiak ezarritakoaren arabera, arartekoak badu osoko bilkuraren aurrean bigarren agerraldi bat egiteko aukera. Horregatik, ohikoa den bezala, azken agerraldi horretan azalduko dut giza eskubideak zein egoeratan dauden Euskadin. Azalpen hori egiteko, oinarritzat hartuko dut erakunde eskubide bermatzaile honek 2007an egin duen lan osoa, bereziki gertakariren batengatik beren eskubideak gauzatzeko orduan ahultasun edo arrisku egoeran dauden taldeei dagozkien lanak. Zuen aurreko agerraldi honetan labur-labur azalduko dut, ezinbestean, txostenaren edukia,





eta zuen esanetara jarriko naiz nire azalpenaren ondoren edo beste edozein momentutan egin nahi dizkidazuen galderei edo eskaerei erantzuteko.

2007ko txostenean zenbait aldaketa egin ditugula ohartarazi nahi dizuet.

Lehenik eta behin, urteko txostenaren azala aldatu dugula ikusiko duzue. 1995az geroztik, Arartekoaren urteko txostenek azal gorria zuten. Formatu berri honekin, produktua erakargarriagoa izatea egin nahi da, erakundea hobetu eta modernizatzeko prozesu orokortuaren esparruan. Formatu honek, gainera, erakundearen logotipo berria jasotzen du; hori duela bi hilabete eskas aurkeztu nuen jendaurrean.

Ikusiko zenuten bezala, liburu formatuan argitaratutako txostenean CD-ROMa barneratu da; bertan, txostenaz gain, Arartekoak 2007an emandako ebazpen guztiak bildu dira. Ebazpen horiek ez dira liburu formatua duen txostenean agertzen; ez zen gauza bera gertatzen aurreko txostenetan. CD-ROMaren berritasuna da interaktiboa dela eta, horri esker, txosteneko beste atal batzuetan aipatzen den ebazpena osorik irakur daitekeela.

Dakizuen bezala, bai txosten hau bai urteko beste txosten batzuk, nola ohikoak hala bereziak, gure web orriaren bidez kontsulta daitezke (www.ararteko.net). Erakundearen web orri berria bisitatzeko gonbit egiten dizuet. Hori ere duela gutxi berritu da eta oraintsu aurkeztu dut. Horren helburua web orrira sartzea ahalik eta errazena izan dadin eta erakundea eta biztanleak etengabe harremanetan egon daitezen lortzea da.

Beste berritasuna bere garaian bidali zitzaizuen laburpen aldizkariaren formatuaren aldaketa da. Helburua erabilgarriagoa izatea, irakurterrazagoa izateko aldaketak jasotzea eta aurreko aldizkariak baino eduki gehiago biltzea da.

I. KEXAK IZAPIDETZEA





Kexak izapidetzeari buruz txostenean egin den atalean ere zenbait berritasun garrantzitsu egin dira. Ararteko erakundeak Eusko Legebiltzarrarentzat egin dituen aurreko txostenetan, atal honetan kexa-espeditente eta ofiziozko jarduera adierazgarrienetako batzuk biltzen ziren, alorrez alor eta azpialorretan multzokatuta.

Aukeratutako kexa-espeditente bakoitzaren laburpena hiru zatitan egituratuta dago: sortutako problematika islatzen zuen gertakarien kontakizuna; adierazitako arazoaren analisia; eta Ararteko erakundearen esku-hartzearen bukaerako emaitza. Gainera, arlo bakoitzean sarrera egiten zen eta, bertan, zegokion arloaren inguruko ikuspegi globala eskaintzen zen.

2007ko ekitaldi honetan, lehen aldiz, espeditenterik garrantzitsuenen zerrenda ezabatu da. Horren ordez, arlo bakoitzean egindako sarrera indartu da eta, horrela, ikuspegia orokorragoa eta sistematikoagoa izan dadin sustatu da, nahiz eta kexetan adierazitako kasu zehatzak aipatu diren.

Orain dela gutxi Legebiltzarreko lehendakariari urteko txosten hau eman nionean eta gero hedabideen aurrean aurkeztu nuenean, zenbait datu kuantitatibo aipatu nituen, nire ustez, azpimarratu beharrekoak ziren-eta. Dakizuenez, txostenean berriazko atal bat aurkituko duzue, seigarrena, "Ararteko erakundearen jarduera kopurutan" izenburuarekin, III. eranskinarekin batera. Eranskin horrek "grafikoak" izenburua du eta bertan agertzen dira datu kuantitatibo horiek irudikatzeko beharrezkoak diren diagrama guztiak.

Jarraian, kopuruen ikuspuntutik begiratuta, hiru alderdi hauek azpimarratuko ditugu: erakundeak eskaintzen dituen arreta eta informazioari esker, haren eta herritarren artean sortzen den harremana; erakundearen eraginkortasun maila; eta erreklamatzailleek Arartekoaren esku-hartzeaz egiten duten balorazioa.

2007. urtean 4.161 kontsulta izan dira hiru hiriburuetakoko bulegoetan, erakundeari telefonoz zuzendu zaizkion zein bulegoetara bertaratu diren pertsonenak. Arartekoaren arreta zuzeneko hiru bulegoetan guztira 2.572 bisita jaso dira eta, horietatik, 672k, hau da, % 24,57k, kexa aurkeztu



dute. Datu horrek garbi uzten du zeinen garrantzitsua den arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lana, gure eskumenekoak ez diren arazoei buruzkoak direlako kexa gisa izapidetu ezin diren biztanleen eskaerak jasotzen direnean, informazioa eta orientazioa ematen saiatzen baita, biztanleak zer egin edo nora jo jakin dezan. Gainera, Internet herritarrek kexak jartzeko duten bide gisa sendotu da eta erakundearen web orriaren bidez aurkeztutako erreklamazioen kopurua hazten doa urterik urtera (www.ararteko.net). 2007. urtean, erreklamazioen % 36,26 erakundearen web orriaren bitartez heldu zaizkigu.

2007an biztanleek guztira 1.558 kexa aurkeztu dituzte Arartekoan, horretarako ezarritako bideetako batez baliatuta, biztanleentzako arreta bulegoetakoren batean, Internet bidez edo posta erabilita. Zenbait erreklamaziok aldeko hainbat sinadura zekartzaten. Kexen % 8 talderen batek aurkeztu ditu. Gainera, ofiziozko 62 espedienteri eman zaie hasiera.

2007. urtean bertan erabat izapidetu diren kexei dagokienez, aztertu diren banakako edo taldeko kexen % 42,26n okerreko jarduerak edo jarduera ezegokiak atzeman ditu erakunde honek. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduerak zuzendu ahal izan zituen, oker, zabarkeriaz edo botere abusuz jokatu zela edo tartean ziren pertsonen eskubideak babesteko beste administrazio jardueraren bat burutu behar zela agertu zuten erreklamazioen % 89,72n.

Erakunde honen jarduera baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkesten emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso positibotzat edo nahikoa positibotzat jotzen da (galdera-sorta erantzuten dutenen % 89,73ren ustez). Euren arazoa konponduta ikusterik ezin izan duten edo aurkako emaitza jaso dutenen pertsonen ere balorazio oso positiboa edo nahikoa positiboa egin dute (% 72,84). Erakunde honetara jo duten pertsona gehienek, % 89,73k, adierazi dutenez, beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko liekete administrazioarekin arazoren bat izanez gero.



II. TXOSTEN BEREZIAK, LEHENTASUNEZKO ARRETA BEHAR DUTEN TALDEEN INGURUKO JARDUERAK ETA GIZA ESKUBIDEAK SUSTATZEKO JARDUERAK

Ararteko erakundearen jarduerak ez dira kexak izapidetzera mugatzen. Txosten bereziak prestatzea ere badagokio, pertsonen eskubideak babestearekin eta administrazio egokiarekin, administrazio publikoek izan behar duten jokabide egokiarekin, erlazionatutako gaiei buruz.

Orobat, Arartekoa Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria da, herritarren eskubideak babesteko sortua, batez ere herritarrak beren eskubideak gauzatzekoan babesik gabe baldin badaude, edota ahultasun edo arrisku egoeran. Beraz, Arartekoa gizaki guztien legebiltzar defendatzailea da, bereziki adingabe, emakumeen eta gizonen berdintasun, adineko, ahalmen urritu, etorkin, transexual eta abarren legebiltzar defendatzailea, eta lan egin behar du pertsona guztiak – norberaren aferak edozein izanik ere – lehen mailako herritarrak izan daitezen eta beraien eskubide guztiak behar bezala zaindu daitezen.

Txostenaren hirugarren atalean aurkituko duzue iaz landu genituen txosten berezi ororen berri. Laugarrenean, lehentasunezko arreta behar duten taldeak deritzegun 11 taldeen arazoez burutu ditugun jarduerak azaltzen dira. Bosgarrenean, berriz, giza eskubideak errespetatzeko kultura suspertzeko asmoz egin ditugun jardueren berri ematen da.

Txosten bereziak paratzea eta gero horien bilakaera aztertzea funtsezko tresna da erakunde honi dagokion zeregina betetzeko, hau da, eskubideak bermatzeko. Kexan azaldutako kasu zehatzak gainditzea ahalbidetzen du, eta txostenetan gai horiek oro har tratatzea.

2007ko ekainean eman genion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari **Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn** izeneko txosten berezia; iazko urrian aurkeztu zen batzorde honetan.





Gogoan izango duzue, txosten honek ez ditu, soilik, berariaz gazteekin zerikusia duten gomendioak proposatzen, gazteei eragiten dieten arazoetako askok gainerako biztanleei oro har ere eragiten baitiete.

Txostenaren alderdi interesgarrietako bat gure eredia Europako beste eredu batzuekin alderatzearena da. Horri esker, puntako beste herrialde batzuetan gai honi buruz sortu diren ideien eta aurkitu diren irtenbideen berri izan dezakegu.

Gomendio nagusien artean, lehenik eta behin, alokairuko etxebizitza babestuaren eskaintza areagotzeko eta horien kalitatea hobetzeko buruzko gomendioen multzoa aipatu behar dugu. Horren haritik, arlo honetan eskumenak dituzten botere publiko guztiei gomendatzen diegu batez ere alokairuko etxebizitza babesturako erabil ditzatela etxebizitza politiketarako eman zaizkien baliabide publikoak;

Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu etxebizitza babestuaren tipologia guztietarako araudi komuna sustatzea, etxebizitza babestuari buruzko euskal lege bat atereaz. Lege horrek euskal lurralde osorako araudi komuna izan behar du.

Bestalde, etxebizitza babestuak lortzeko prozedurei dagokienez, gure ustez komeni da oraingo zozketaren ordez, baremazioa lehenetsiko duten sistemak ezartzen laguntzea, etxebizitza babestuak esleitzeko orduan etxe premiarik handiena duten pertsonak lehenesteko. Halaber, beharrezkoa da etxebizitza babestuen eskaintza behar bezain ugaria izatea, diseinuetan nahiz neurrietan, eta gaur egungo beharretara egokitzea (etxebizitza txikiagoak gizabanakoentzat, eta neurri ezberdinetako etxebizitzak bizikidetzako unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera).

Halaber, une oro bermatu behar da etxebizitza babestuen funtzio soziala. Horretarako, etxebizitza horien erabilera kontrolatzeko bideak jarri behar dira, ikuskatze sistemen bitartez, hasieran etxebizitza esleitzea legitimatu zuten baldintza ekonomiko eta ondarezkoak bere horretan dirautela egiaztatzeko.



Erakunde honen iritziz, etxebizitza politika propioak abiarazteko ahalmena duten hainbat administrazio publiko daudenez gero, ezinbestekoa da erakunde horien artean koordinazio eta lankidetzaren sistema sendoa ezartzea, etxebizitza politikak, oro har, euskal herritar guztien onurarako izan daitezzen, etxebizitza babestua EAeko lurralde osoan modu homogeenan sustatuko dela bermatuz.

* * * *

Bestalde, 2007an beste txosten berezi batzuk ere landu dira. Horrela, datozen egunetan Legebiltzarreko lehendakariari **Arreta soziosanitarioaren egoera EAEn** izeneko txosten berezia emango diot.

Hemen ez naiz luzatuko txosten hori azaltzen, laster aurkeztuko baitut batzorde honetan bertan. Nolanahi ere, nabarmendu nahi dut txostenak hiru helburu izan dituela:

- Batetik, erreferentziako oinarriko elementu batzuk eta hainbat nahaste terminologiko argitzeko gai izango den esparru kontzeptuala egituratzeko asmoa du, funtsean nazioarte mailan izandako aurrerapauso teoriko eta praktikoetan oinarrituz.
- Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoerari buruzko diagnostikoa egin nahi izan da. Diagnostiko hori ez da, Arartekoaren txosten berezietan gertatu ohi den bezala, euskal egoeraren ebaluazio sakona, zehatza eta sistematikoa. Gure inguruneko arreta soziosanitarioaren garapena hasiberria denez – txosten hau idatzi denean indarrean dagoen Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako Plan Estrategikoaren ibilbideak bi urte baino gehixeago bete ditu –, ebaluazioaren ikuspegia baztertu egin zen. Ondorioz, besterik gabe, aurrerapausoen deskripzioa egitea eta eremu soziosanitarioak pertsona batzuen artean sorrarazten dituen jarrera, iritzi eta kritiken azterketa aurkeztea erabaki da. Jarrera, iritzi eta kritika horiek teknikarien eta profesionalen, eta, kasuren batean, baita politikariengan ere



sumatu dira, eta haiek zerikusi zuzena dute eremuaren eraikuntzan eta haren ezarpen praktikoan. Lehen diagnostiko honen asmoa ez da gure inguruan gaiak izan dezakeen azterketa agortzea, baina bai izan nahi duela garapen mailaren balantze zehatza eta fidagarria.

- Azkenik, bai beste autonomia-erkidego batzuetan bai beste herrialde batzuetan garatutako ekimen eta esperientzia batzuen gaineko deskripzio sintetikoa eta egituratua egiten du.

2007an beste txosten bat ere egin dugu: **Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzei buruzkoa**. Txostena edizio bidean dago eta datozen asteetan emango diogu Legebiltzarreko lehendakariari.

Lau hau egitearen arrazoia da, egun, bazterkeria arriskuan dauden pertsonak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, pertsona ezgaituak edo mendetasun handi nahiz txikia duten adinekoak bezalako sektore hain esanguratsuen gizarte arretarako gure komunitatean jarritako zerbitzuen zati handi bat gizarte ekimenezko elkarte edo erakundeek kudeaturikoa dela. Horretarako, laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte hainbat administrazioen eskutik (Eusko Jaurlaritzako sailetatik, foru aldundietako sailetatik, udal eta mankomunitateetatik...). Horrela, bada, lankidetzak dago eremu publikoaren eta pribatuaren artean; lankidetzak hori ez da, ordea, behar lukeen bezain argia izaten edo ez da behar beste arauturik egoten.

Errealitate hori hainbatetan aztertu du Arartekoak, batzuetan partzialki edo nolabait zeharka, beste txosten berezi batzuetan, ofiziozko jardueren bidez edo gomendio orokorretan. Txosten honen helburua gaia sakonago eta ikuspegi orokor batetik aztertzea da.

- **laz, Terrorismoaren biktimen egoerari eta beharrazanei eta EAEko erakundeen erantzunei buruzko txostena** ere egin da.

Zorionez, txosten hau prestatzen hasi ginenetik, botere publikoek hainbat jarduera burutu dituzte. Hori dela-eta, txostena egiteko hasieran ezarritako denboraldia luzatu egin behar izan dugu,



txostenak egiten duen erretratuak ahalik eta modurik zabalenean bil ditzan azken hilabeteotan mamitzen doazen ekimen posibleak.

Gure asmoa, legebiltzar honetako goi ordezkari garen heinean, erakunde honi laguntzea da, indarkeria terroristaren biktimei errekonozimendua eta laguntza eskaintze aldera euskal administrazio publikoek burutzen dituzten jarduerak monitorizatu eta sustatzeko eginkizun garrantzitsu horretan. Hala, era horretako indarkeriaren biktimek eta ETAk mehatxatuta bizi direnek zer beharrian dituzten eta egoera nola ikusten duten jakinarazten dugu.

* * * *

Era berean, 2007an beste txosten hauek prestatzeko hainbat fasetan jardun zen:

– **Adingabeei balioak transmititzeari buruzko txostena.**

2007an beste ikerlan bat hasi zen adingabeei eta balioei dagokienez. Gai hau oso garrantzitsua da Ararteko erakundearentzat eta oso lotuta dago ikastetxeetako bizikidetzari buruzko gure txostenean ere aztertutako kontuekin.

Urte horretan informazioa bildu zen bai Lehen Hezkuntzako bai Bigarren Hezkuntzako 1.500 ikasle ingururen lagin batean *ad hoc* egindako hiru galdera-sortaren bidez eta eztabaida-taldeak egin ziren adingabe, guraso, irakasle eta profesionalekin.

Une honetan, informazio guztia aztertzen ari gara eta, aurreikuspenen arabera, txostena urtea amaitu baino lehen argitaratu ahal izango da.

Txostenak aldeak onartu eta errespetatzearekin erlazionatutako oinarrizko balio jakin batzuetan jarriko du arreta, balio horiek transmititzerakoan gizarte eragile ezberdinek (besteak beste, komunikazioaren teknologia berriek) duten garrantzia aztertuko da





eta, halaber, gutxitan aztertu ohi den biztanle talde bati (hots, 8 edo 10 urtetik beherako adingabeei) buruzko informazioa aurkeztuko du.

– **Nerabeei eta alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoari buruzko txostena.**

2007an nerabeei eta alkoholaren eta beste droga batzuen gehiegizko kontsumoari buruzko ikerlana ere hasi genuen. Eusko Legebiltzarrak berak egindako eskaerari zor zaio eta bere helburua gai honen inguruan jada egin diren eta, kasu batzuetan, gainera, tradizio luzea duten beste txosten eta azterlan batzuk osatzea da. Horregatik, garrantzi berezia eman nahi zaio arrisku jokabideak saihestu eta horien emaitzak baloratze aldera gure erkidegoko erakundeak burutzen ari diren programak eta jarduerak baloratzeari.

Aurreikuspenean arabera, txostena 2008 amaierarako bukatuta egongo da eta 2009 hasieran argitaratu ahal izango da.

* * * *

Aldi horretan jarduera ere gauzatu dugu giza eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko.

Erakunde honentzat bereziki garrantzitsuak dira gizarte zibilarekiko harremanak eta, zehazkiago, antolatutako gizarte zibilarekikoak. Horregatik, bilerak eta harremanak izan ditugu elkarteekin eta gizarte eragileekin. Horien lana ordainezina eta ordezkazina da, gizarte antena gisa baitihardute; horri esker, elkarte horiek beren lana garatzen duten errealitate ezberdinak ondo ezagut ditzakegu. Ikerlanaren inguruko informazio zehatza nahi izanez gero, txostenaren bosgarren ataleko lehen azpiatalean aurkituko duzue.

Ikerketa aplikatuko bekak ematen jarraitu dugu. Lan horiek eginda eta argitaratuta, hainbat errealitatetara giza eskubideen ikuspegitik hurbil gaitzke.





2007an, gure ustez interes izugarria duten lau azterlan argitaratu ziren:

- Lehen lanak, ***Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean*** izenekoak, biztanle guztientzat garrantzi handikoa den gaiari heltzen dio: osasun arloko gizarte desberdintasunak, eta aldagai jakin batzuek –bereziki, gizarte klaseari eta generoari lotutakoek– pertsonen osasunean duten eragina, saihesteko modukoak eta bidegabeak diren aldeak sortuz. Azterlanak garbi uzten du osasuneko desberdintasunak ez daudela gure artean bakarrik; aitzitik, oso esanguratsuak dira eta, are gehiago, belaunaldi batetik bestera ere heredatzen dira. Gainera, ez da soilik aberatsen eta txiroen arteko zerbait, baizik eta gizarte osoan dute eragina, nahiz eta, zenbat eta baxuagoa izan gizarte klasea, orduan eta kaskarragoa den osasuna. Hortaz, gutxi landu dugun gaien jartzen du arreta. Horretarako, zehaztasun handiz jokatzeko du eta oso aberatsak eta ahalik eta berrienak diren datu baseetan oinarritutako metodologia erabiltzen du.

Azterlanak zalantzan jartzen ditu berdintasunari, osasunari, desberdintasunen zuzentzaile gisa osasun sistemak duen garrantziari edo gure gizartea ekitate handiagorantz izaten ari den bilakaera positiboari buruz ditugun estereotipoetako asko.

- Bigarren lanak, ***Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular*** izenekoak, **udal erroldan** jartzen du arreta, pertsona askok bizi diren udalerrian erroldatzeko dituzten zailtasunetan. Gai horren ondorioz hainbat kexa jaso dira eta hainbatetan jardun behar izan du Arartekoak.

Ikerlan honek erroldaren azterketa orokorra egiten du. Alde batetik, erroldaren alderdi teoriko eta legalean, izaeran, tratamendu historikoan, araudian, eginkizunetan, eskumenean, etab. sakontzen du. Bestetik, atzerritarrek beren eskubideez baliatzean duen eragina ere aztertzen du eta, errealitatea aztertuta, zenbait ondorio



aurkezten ditu. Baina ez du, soilik, arazoaren egoera aurkezten; aitzitik, agerian uzten du udalen jardueretako askok ez dutela babes juridikorik edo beste irtenbide batzuk eman behar litzaizkiekeela udalerrian bizi ohi diren pertsonen erroldatzearekin erlazionatutako eskubideak eta zerbitzuak eskura ditzaten.

- Goian aipatutako lanetatik hirugarrenak, ***Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak*** izenekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen biztanleria magrebtarraren egoera eta itxaropenak aztertzen ditu. Ezaugarri jakin batzuk dituen –kulturalak, erlijiosoak...– eta, azterlan guztien arabera, bertako biztanleek nabarmen saihestu edo gaitzetsi egiten dituen atzeritarrak ikertzen ditu.

Lanak, funtsean, beren ahotsa, esperientzia, iritziak, proposamenak... bildu nahi ditu eta, horretarako, berrogei magrebtarrei elkarrizketak egin zaizkie, nola gizonezkoak hala emakumezkoak. Lanaren zatirik garrantzitsuena elkarrizketa horietan lortutako informazioaren analisisa da. Lortutako informazioa gai edo kapitulu ezberdinetan “antolatu” da:

- Beren gizarte egoera (migrazio proiektuak, hasierako harrera, etxebizitza eskuratzeko aukera, famili eta laguntza sarea...).
- Islamarekiko beren bizipena (otoitza, mezkita, hilerriak, elikadura, jantziak...) eta horren bilakaera.
- Beren gizarte bizitza eta dituzten harremanak (lagunak, elkarguneak, bertako biztanleekiko harremana eta horri buruzko iritziak...).
- Beren nortasuna eta integrazioa (beste hizkuntza batzuk ikastea, ama-hizkuntza mantentzea, Islama erakustea, parte-hartze soziopolitiko...).

Baina, azterlanaren zatirik garrantzitsuena hori izan arren, lanak beste informazio eta datu batzuk ere ematen ditu hura dagokion testuinguruan kokatzeko: EAEn bizi den biztanleria magrebtarraren ezaugarriei buruzko datuak (kopurua, jatorria, sexua, adina...) eta



horien bilakaera, eta jatorri herrialdeei buruzko datuak (demografikoak, ekonomikoak...). Horrez gain, "Ondorioak" izeneko kapitulua du, laburpen gisa. Bertan, biztanleria magrebtarraren premiak eta eskaerak biltzen dira eta horiek pertsona horien integrazioa ahalbidetzeko eta beren eskubideak behar bezala betetzen direla bermatzeko erabaki politikoak hartzen lagun gaitzake.

- Azkenik, 2007an amaitutako ikerlanen artean, aipatutako laugarren azterlanak **emakume lesbianek Euskadin duten ikusgaitasuna eta parte-hartzea** lantzen du.

Lan hau 2007ko abenduan argitaratu da. Ikerlan honetan, egileak EAEn lesbianek gizartean duten ikusgaitasun txikia aztertzen du, hori eragiten duten arrazoiak eta horrek lesbianentzat eta, oro har, gizartearentzat dituen ondorioak ezagutze aldera.

Lan honen bidez ikus daiteke, gai horren inguruko legetan aurrerapen ugari egin diren arren, gure gizarteak mugatzailea eta, batzuetan, negatiboa izaten jarraitzen duela lesbianismoa berdintasun, askatasun eta duintasunez bilakatzeko. Horregatik, Ararteko erakundeak, lan hau argitaratuta, ohartarazi nahi izan du hainbat bizimodu daudela eta guztiak osorik bizi behar direla; horretarako, beharrezkoa da bai gizarteak bai botere publikoek lesbianen egoera hobetzen laguntzea, pertsonen berdintasuna defendatzeko tresna publikoetan orain arte ahaztuta egon den ikuspegi hori barneratuta.

* * * *

Beste kontu batzuei helduz, hausnarketarako eta herritarren partaidetzarako foroak antolatu direla nabarmendu behar dugu.

Maiatzaren 24an, **ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei** buruzko foroa egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, gai buruzko txostena berezia amaitu eta urtebetera, kontua nola zegoen ebaluatu nahi izan





genuen. Horretarako, hezkuntzaren esparruarekin modu batera edo bestera erlazionatuta dauden 40 bat pertsona bildu genituen (irakasleak, zuzendariak, laguntzaileak, ikuskatzaileak, gurasoak, ikertzaileak eta sistema judizialeko profesionalak) eta sakontasun eta zehaztasun handiz hausnartu zen zortzi ardatzen gainean. Gutxi barru, foro horren edukia bilduko duen argitalpena kaleratuko dugu.

Halaber, hausnarketarako eta herritarren partaidetzarako beste foro bat antolatu genuen, zehazki laugarrena erakunde hau sortu zenetik. Foro horren izena **“La participación ciudadana, ¿ficción o realidad?”** izan zen. Uztailaren 5ean egin zen Donostian, udako ikastaroen aurreko ekitaldi gisa, eta unibertsitateko irakasleek, adituek eta elkarteetako ordezkariak hartu zuten parte.

EHUko Udako Ikastaroetako jardunaldia

Nire ustez, kalitatezko demokrazian, herritarren partaidetzaren eta informazioaren printzipioak funtsezkoak dira eztabaidagarriak izan daitezkeen zenbait erabaki publiko hartzerakoan. Hori dela-eta, gurearen moduko demokrazia ordezkatzaillearen sistema indartzen duten partaidetza bideen gainean hausnartzea erabaki genuen.

* * * *

Kexak kudeatzen eta txosten bereziak prestatzen burutzen dugun lana osatzen duten jardueren eremu zabalaren barruan, aipatu nahi dut Ararteko erakundeak (nik neuk, arartekoaren ondokoak, idazkari nagusiak edo sailtako koordinatzaileak) erakunde publikoak, gizarte erakundeak edo unibertsitateak antolatutako hainbat ekitalditan parte hartu dugula. Ekitaldi horiek gure eginkizunekin erlazionatuta daude eta horietan, askotan, hitzaldiak eskaini dira edo txostenak prestatu dira. Bosgarren ataleko hirugarren azpiatalak jarduerarik esanguratsuenak biltzen ditu.

Halaber jasota utzi behar dugu Arartekoak modu aktiboan hartu duela parte herriaren defentsa erakundeek edo Ombudsmanak antolatutako elkarte eta koordinazio foro eta organoetan. Espainiako Defentsa





Erakundearen eta autonomia-erkidegoetako defentsa-erakundeen arteko XXII. Koordinazio Jardunaldiak eta Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XII. Kongresua azpimarratuko ditugu. Ekitaldi horien inguruko informazioa nahi izanez gero, bosgarren ataleko bigarren azpiatalean aurkituko duzu.

III. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA

Ararteko erakundeari eman zaizkion eginkizunak beteko badira, ezinbestekoa da bere kontrolpeko administrazioen laguntza. Administrazio horiek beharrezko informazio guztia eman behar dute, bideratzen ari diren espedienteak arrazoi bidez ebazteko, eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontrol lanek gutxienezko eraginkortasuna izatea nahi bada behintzat.

Urteko txosten honen VII. atalean xeheki adierazita aurkituko duzue nolako jarrera izan duten administrazio publikoek, emandako epean lagundu ez dutenak berariaz aipatzen direla.

Administrazio publikoek eskatzen zaien informazioa bidali behar dute. Horretan laguntzea funtsezkoa da kexa-espedienteak izapidetzeko. Tamalez, laguntza hori beti ez da nahi bezain prestua izaten.

Gasteizko udalak eta Zaratamokoak bitan ez zioten egin jaramonik txostena amaitzear genuela egin genien laguntza-eskaerari, ohartarazpena jaso zuten arren.

Zenbait administraziook ere, informazio eskaera egin eta hiru hilabete baino gehiago igaro ondoren, txosten hau amaitzear genuela ez zuten oraindik erantzunik bidali. Bat, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila izan zen, lau espedientetan, eta, bestetik, Artziniega, Sestao, Lezo eta Zigoitiko Udalak, hiru espedientetan bakoitza.





Txostenean, espediente bati buruzko informazio eskaerari erantzun ez zioten beste udal batzuk aipatzen dira. Alderdi negatibo gisa esan behar da Sestaoko Udalak, bitan, eta Ibarra eta Pasaiaiko udalek erantzuteke dituztela 2007 baino lehenagoko espediente batzuei.

Nabarmendu behar dut erakunde honi ez laguntzeak ez duela, soilik, bere kontrol lanarekiko errespeturik gabeko jarrera erakusten, baizik eta, are okerrago, beren eskubideei kalte egin zaiela adierazten duten herritarrei lagundu ahal izatea eragozten duela.

IV. GOMENDIO OROKORRAK

Gomendio orokorretatik lehen **eskola-mapa berriaren ildotik haur eskoletan onarpen irizpide komunak ezartzearen komenigarritasunari** buruzkoa da.

Eskola-mapa berria egiterakoan xede inklusibo eta integratzailea izan denez kontuan, prestakuntza ibilbide osoak diseinatu dira, Haur Hezkuntzako aldi osoa (0 eta 6 urte artekoa) barneratuta, Haurreskolak Partzuergoaren menpeko haur eskolak sare publikoko ikastetxeei atxikitzeari esker.

Hasiera batean, pentsa daiteke, horren bidez, hezkuntza-administrazioak 0 eta 3 urte arteko lehen zikloa batera planifikatu dadin ziurtatu nahi duela, izan ere, Partzuergoak egindako eskaintzak, funtsean, 0 eta 2 urte arteko tartean jartzen du arreta eta ikastetxe publikoek, berriz, 2 urteko haurrentzako gelen eskaintza orokortu dute.

Baina, prestakuntza ibilbide osoak ezartzeari dagokionez adierazitako helburua kontuan hartuta, elkartze horrek are garrantzi handiagoa duela dirudi, eta, beraz, ezin da oharkabean joan, unibertsitateaz kanpoko mailako prestakuntza ibilbide osoa aurretik zehazten baitu.

Jakina denez, funts publikoekin lagundutako ikastetxeetan dagoen eskaera guztiari erantzuteko plaza nahikorik ez dagoenean, beharrezkoa da





aurrez definitutako lehentasunezko onarpen irizpide batzuk aplikatzea, besteak beste, etxetik gertu egotea, anai-arrebaren bat matrikulatuta egotea, errenta-mailak, etab. Irizpide horiek ahalbidetzen dute ikasleak onartzeko prozesuetan aukera berdintasuna bermatzea. Hala ere, hezkuntza-antolamenduak berak beste irizpide bati eman dio lehentasuna, alegia, ikastetxeen arteko elkartze edo atxikitzeari.

Gure ikuspegitik, eskola-mapa berriak bere egiten du unibertsitateaz kanpoko mailetako etapa ezberdinetako ikastetxeak ondoz ondotik atxikitzeiko aukera hori. Horregatik diogu, behin eta berriro, beharrezkoa dela atxikitzeiko aukera hori programazio publiko osora zabaltzea, baita udalen menpe dauden haur eskolak direnean ere, eta antzeko baldintzak ezartzea, hezkuntza zerbitzuez baliatzeko aukerak berdintasunean oinarrituta egon daitezen.

Itxuraz, haur eskolei buruz onetsitako araudiak, neurri batean behintzat, bere egin zuen asmo hori, izan ere, 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurren haur eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak (azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren bidez indarrean dirauenak) 11. artikuluan honakoa ezarri zuen: *“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, tartean diren erakunde guztiak entzun ondoren, zero eta hiru urte arteko haurrak onartzeko irizpide orokorrak finkatuko ditu bai ikastetxe publikoetarako bai laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten beste ikastetxe batzuetarako.”*

Gomendioan azaltzen den moduan, bizi izan dugun errealitatea oso bestelakoa izan da. Nolanahi ere, txostena Legebiltzarreko lehendakariari eman ondoren, ikusi ahal izan dugu, Hezkuntza Sailak emandako azalpenei jarraiki, aurrerapen handiak egin direla gomendatutako zentzuan datorren ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan.

* * * *

Bigarren gomendio orokorra **“Ertzaintzak eta udaltzaingoek polizien xedeetarako bildutako norberaren datuak ofizioz baliogabetzeari”** buruzkoa izan da.





Zenbait kexa izapidetzerakoan, kezka azaldu genuen polizi kidegoek beren xedeetarako biltzen dituzten datuak direla-eta aplikatzen dituzten irizpideen inguruan eta, baliogabetu behar direnetan, ofizioz baliogabetzeko lege agindua betetzen ote den galde egin genuen. Ondorio horietarako, Ertzaintzak eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko udaltzaingoen nola jokatzeko aztertu genuen.

Eragindako administrazioek lege agindua betetzeko zailtasunetako batzuk utzi zituzten agerian, bereziki, polizi jardueraren ondorioz epaileak esku hartu badu. Kasu batzuetan, sistema informatikoak ahalmen nahikoa ez dutela eta lege agindu batzuen inguruan interpretazio zalantzak sortu direla ere adierazi zen.

Hainbat egoera zeuden: lege ezarpenak betetzeko mekanismoak zituztenak (Ertzaintza), nahiz eta zailtasunak zeudela onartu; lege ezarpenak betetzen ez zituztenak, hala egiteko modua arautua ez zegoelako (Bilboko Udala); araurik ez zutenak, baina, batzuetan, ofizioz jarduten zutenak (Donostiako Udala); edo interesdunek hala eskatuta bakarrik jarduten zutenak (Gasteizko Udala).

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoarekin bat etorritik, segurtasun indar eta kidegoek dituzten datuak honako kasu hauetan baliogabetu behar dira:

- bildu zirenean bete behar zuten xedea betetzeko beharrezkoak ez direnean;
- zehatzak ez direnean edo osatuta ez daudenean eta, ondorioz, aldatu edo osatu egin behar direnean;
- eta, bereziki, datuak biltzea eragin zuen ikerketetarako beharrezkoak ez direnean.

Ondorio horietarako, kontuan izango dira eragindakoaren adina, absoluzio ebazpen judizial irmoa egotea, indultua, errehabilitazioa edo erantzukizunaren preskripzioa.



Agerian geratu da beharrezkoa dela Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoko xedapenak aplikatzen ez dituzten polizi kidegoek horretarako beharrezko tresna juridikoak berenganatzea eta, hala, horretarako protokoloak ezartzea.

Herriaren Defendatzaileari ere eskatu zaio eman diezagula Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari egin zion gomendioaren jarraipenaren berri. Horren bidez, Kontseiluari eskatu zitzaion Barne Ministerioarekin koordinazioa topa zezala, poliziaren eginbideetatik hasitako prozeduretan emandako ebazpen judizialak segurtasun kidego eta indarrei helaraz ziezazkien, poliziak zituen datu pertsonalak ofizioz baliogabetzeko betebeharra bete ahal izateko.

Herrizaingo Sailak arazoa Polizia Judizialaren Koordinaziorako Batzorde Nazionalean aipatzeko aukera ere baloratu behar luke (Saila batzorde horretako kidea da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Justizia eta Barne ministerioak bezalaxe).

* * * *

Bukatzeko, zuen aurrean nire esker ona adierazi nahi diet orain Ararteko erakundean diharduten guztiei. Langile horietako bakoitzaren lanik gabe Ararteko erakundeari dagozkion eginkizunak burutzea ez litzateke posible izango. Eta zuei denoi biziki eskertu nahi dizuet zuen jarrera, beti harkorra eta ona, Ararteko erakundearekiko eta neurekiko, baita agerraldi honetan eskaini didazuen arreta ere.

Zuen esanetara geratzen naiz, egokitzat jotzen dituzuen azalpenak emateko.

Eskerrik asko.

